ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

# EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

**“Uzta ugaria da, baina langileak gitxi”**

**2023ko ekainaren 18a**
**Urteko 11. igandea (A)**

**Mateo 9, 36-10, 8.**

Aldi haretan, Jesus herriz herri eta auzorik auzo ibili zan, sinagogetan irakasten. Jainkoaren erreinuaren Barriona iragarten eban eta gaitz eta gaixo guztiak osatzen. Gizataldeak ikustean, errukitu egin jaken, nekaturik eta lur jota egozan-eta, artzain bako ardiak lez.

Orduan, ikasleei esan eutsen: Uzta ugaria da, baina langileak gitxi. Erregutu, bada, uzta-jabeari bialdu dagizala langileak bere uztara.

Jesusek, hamabi ikasleei dei eginik, ahalmena emon eutsen espiritu txarrak botateko eta gaitz eta gaixo guztiak osatzeko.

Hona hemen hamabi apostoluen izenak: lehenengo Simon, Pedro deritzona, eta honen anaia Andres; Santiago Zebedeorena eta honen anaia Joan; Felipe eta Bartolome, Tomas eta Mateo zergalaria, Santiago Alfeorena eta Tadeo, Simon Zelote eta Judas Iskariote, Jesus saldu ebana.

Hamabi horreek bialdu ebazan Jesusek, ohar honeek eginez: Ez joan jentilen lurraldeetara, ez sartu Samaria herrialdean ere. Joan, ostera Israel herriko ardi galduetara. Bidean zoazela, iragarri hurrean dala zeruetako erreinua. Osatu egizuez gaixoak, biztu hildakoak, garbitu legendunak, bota deabruak. Hutsean hartu dozue, emon hutsean.

**Laguntaldea ikustean, bere ikasleai auxe esan eutsen: “Solo aria ugaritsua da, eta langilleak gutxi.
Otoitz egiozue, ba, solo ariaren Jabeari, bere solora langilleak bialdu dagizan”.**

# AGINTEA ON EGITEKO

*José Antonio Pagola*

Jesusek ardura handia izan zuen bere bidean aurkitzen zituen pertsona behartsuekiko. Arretaz begiratzen die Kafarnaumgo elbarriari, Jerikoko bi itsuei, gaixotasunak makur-makur egina duen adineko emakumeari, eta barrua hunkitzen diote. Ezin igaro da haien albotik, haien sufrimena zer edo zer arindu gabe.

Baina, gainera, ebanjelioek dioskute, ezen sarritan ezartzen dituela begiak «jendetzagan». Jendea goseak ikusten du, edo hainbat gaixotasun- eta oinaze-motak joa, eta beti gauza bera: errukia sentitzen du.

Bazen modu berezian mintzen zuen gauza bat. Mateok dakarkigu gogora: «*jendea ikustean, errukia sentitzen zuen, zeren nekaturik eta bertan behera utzirik baitzegoen, artzainik ez duten ardiak bezala».* Ez Erromako ordezkariak, ez Jerusalemgo gidari erlijiosoak arduratzen ziren herriko jende hartaz.

Jesusen errukia ez da momentuko sentimendu hutsa. Jendeari begiratzeko modu hori bere berea du, eta bere berea du on eginez bizitzeko modu hori. Jainkoaren errukia haragitzeko modua. Erruki honetatik sortu zaio «hamabi apostoluei» dei egiteko erabakia, *«Israelgo ardi galduetara»* bidaltzeko.

Horretarako, berak eman die *«agintea»,* baina ez die erregalatu botere sakratu bat, hartaz beren gisara baliatzeko. Ez da herria gobernatzeko boterea, «beren botereaz nazioak gobernatzen dituzten» erromatarrena bezalakoa. On egitera bideratua den boterea da, «espiritu gaiztoak botaz» eta «gaixotasun eta oinaze oro sendatuz».

Elizan den aginte guztia Jesusek herriarentzat duen erruki horretatik dator eta horretan oinarritzen da. Sendatzea, sufrimena arintzea eta on egitea du helburu. Jesusen erregalua da. Aginte horretaz baliatzen direnek, «doan» baliatu behar dute; izan ere, Jesusek jendeari egin dion erregalua da Eliza.

Horregatik, hark hots egiten zuena hots egin behar dute ikasleek, eta ez beste ezer: *«hots egin hurbil dela Jainkoaren erregetza»;* entzun ahal dezala jendeak albiste hori eta sartu ahal dadila Jainkoaren egitasmoan. Baina honela joka behar dute: osasuna, bizia, bizikidetasuna eta deabruzkoagandiko askapena ezarriz. Hori adierazten dute Jesusen lau aginduek: *«sendatu gaixoak», «piztu hildakoak», «garbitu lepradunak», «bota deabruak».*